

• Bisigodoak

Erdi Aroan, zenbait herri Iberiar penintsulan ezarri eta gure autonomia erkidegoa konkistatzen saiatu ziren.

Bisigodoak izan ziren lehenengoak. V.mendearen hasieran, herri hori Iberiar penintsulan sartu zen, baina ez zuten lortu lurraldea menderatzea.

VI. mendean, guda laburrak izan ziren euskaldunen eta bisigodoen artean. Azkenean, bisigodoek Araba gehiena kontrolatzea lortu zuten. **Victoriaco** hiria sortu zuten, gaurko Gasteiz.

• Musulmanak eta kristauak

VIII. mendearen hasieran, Iberiar penintsulara musulmanak iritsi ziren baina ez ziren kokatu gaur egungo Euskadiko lurraldean.

XI. mendean, iparraldeko erreinu kristauak musulmanei aurre egin zieten. Iruñeko erreinuak, lehenik, Gipuzkoa hartu zuen eta, ondoren, Araba eta Bizkaia.

XII. mendean, hiru lurralde horiek **Gaztelako erreinuaren** parte izan ziren.

XIV. mendean, hainbat gerra, epidemia eta uzta txarren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Gaztelako erreinuak krisi oso larria jasan zuten. XV. mendera arte.



San Pelaio ermita, Bizkaian



Sagarrondoko Andre Maria eliza, Gipuzkoan

JARDUERA ➤ Ezagutu Segura, Erdi Aroko euskal herri bat [hemen](#)